

TITULARRAK	ADIERAZLEAK				
- Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak behera egin du; aurreko hilabetean baino –% 0,1 gehiago da orain. Guztira 198.890 pertsona daude. Erregistratutako langabeen kopurua jaitsi egin zen apirilean, eta orain 20.942 dira, martxoan baino % 1,8 gutxiago. - Kontratu-kopurua, urtetik urtera, –% 12,4 jaitsi da apirilean. - Txikizkako merkataritzako salmentek % 2,1eko igoerarekin itxi dute 2025eko lehen hiruhilekoa, 2024ko aldi berarekin erkatuta. - Saltoki handietako eta elikagaien kateetako apirileko salmentek urte arteko % 2,4ko gorakada nominala izan dute. - Bilboko turismo-jarduerak urtetik urtera gora egin du, eta 206.189 ostatu-gau (% 15,3) eta 106.743 sarrera (% 13,0) erregistratu dira apirilean. - Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmenta-indizea % 3,4 igo da urtearen lehenengo hiruhilekoan. - Bilboko aireportuak 617.667 bidaiari jaso ditu apirilean; hortaz 25.399 bidaiari gehiago egon dira 2024ko hilabete berarekin alderatuta. - Bilboko Portuko salgaien garraioa apirilean –% 11,2 murriztu da urtetik urtera.					
		Azken data	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data	
	Lan-merkatua				
	Afiliatuak (kop.)	198.890	–0,1*		ap.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	20.942	–1,8*		ap.
	Erregistratutako kontratuak	9.142	-12,4		ap.
	Merkataritza				
	Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	109,4	2,1		2025eko I. HH
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	97,7	2,4		Ap.
	Turismoa				
	Bidaiarien sarrera (kop.)	106.743	13,0		Ap.
	Ostatu-gauak (kop.)	206.189	15,3		Ap.
	Ekonomia eta enpresa				
	Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	120,5	3,4		2025eko I. HH
	Etxebizitza libre berria (€/m²)	4.135,0	10,8*		2025eko I. HH
	Etxebizitza erabilia (€/m²)	3.136,8	–0,2*		2025eko I. HH
	Garraioa				
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	617.667	4,3		Ap.	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,7	-11,2		Ap.	

DATU BAT

% 4,3

Aireportuko bidaiariak

[2025eko maiatzaren 31ko datuak]

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia-tasa

Apirilean 394 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hil artean $-1,8\%$ gutxiago, eta 20.942 langabe daude udalerrian.

Emakumeen eta gizonezkoen artean langabezia jaitsi egin da: $-1,9\%$ eta $-1,8\%$, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 230 emakume eta 164 gizon langabe gutxiago zeuden.

Langabeziak behera egin du adin-talde guztietan. Gazteen artean $-7,4\%$ jaitsi da, 25 eta 44 urtekoen artean $-1,8\%$ eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean $-0,9\%$ (149, 134 eta 111 gutxiago).

Langabeziak behera egin di sektore guztietan: zerbitzuetan ($-1,5\%$ eta 230 langabe gutxiago), industrian ($-2,8\%$ eta 39 gutxiago), eraikuntzan ($-1,0\%$ eta 13 gutxiago) eta lehen sektorean ($-1,0\%$ eta 4 gutxiago). Behera egin du baita ere langabezian egonda lehenengo lanbidea bilatzen ari direnen artean ($-3,3\%$ eta 108 langabe gutxiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa $1,8\%$ murriztu da aurreko hilaren aldean. Sevillak izan du beherakadarik handiena: $-3,4\%$. Madrilen eta Bartzelonan erregistratu dira beherakadarik nabarmenenak hilabete honetan, $-1,2\%$ bi kasuetan.

Euskal hiriburu taldean (G-3) erregistratutako langabezia $-2,0\%$ jaitsi da. Behera egin de Gasteizen ($-1,4\%$), Donostian ($-1,9\%$) eta Iruñean ($-3,0\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-1,4\%$), baita lurraldeka ere: $-0,9\%$ Araban zein Gipuzkoan eta $-1,8\%$ Bizkaian.

Afiliazioa

Apirilaren amaieran Bilboko enpresetan 198.890 afiliatu zeuden, hau da, martxoan baino 153 enplegu gutxiago ($-0,1\%$).

Araubideen arabera, Orokorrak 170 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean, eta Etxeko langileen araubideak 12 afiliazio ($-0,1\%$ eta $-0,2\%$, hurrenez hurren). Autonomoen Araubide Bezeriak 8 afiliazio irabazi ditu, eta araubide berezietako enpleguek (nekazaritza eta itsasoa) 21 ($0,0\%$ eta $3,1\%$, hurrenkera horretan).

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Apirila	20.942 pertsona
	$1,8\%$ ▼
Emakumeak	$1,9\%$ ▼
Gizonak	$1,8\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$1,8\%$ ▼
G-5	$1,8\%$ ▼
G-3	$2,0\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Apirila	198.890 pertsona
	$0,1\%$ ▼
Araubide orokorra	$0,1\%$ ▼
Autonomoak	$0,0\%$ ▲
Etxeko Sistema Berezia	$0,2\%$ ▼
Beste batzuk	$3,1\%$ ▲

Sektoreen arabera: zerbitzuek 131 afiliatu galdu dituzte (–% 0,1) eta eraikuntzak 68 (–% 0,7). Industriak 17 enplegu ditu (+% 0,2) eta Lehen Sektoreak 29 (+% 14).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, Administrazio-jardueretan eta jarduera osagarrietan, Osasunean, Gizarte zerbitzuetan eta Aisialdi eta kulturako jardueretan izandako igoerak nabarmentzen dira (163, 125, 106 eta 104 gehiago, hurrenez hurren).

Jaitsierarik nabarmenenak Hezkuntzan (453 enplegu gutxiago) eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan (103 enplegu gutxiago) izan dira (–%1,7 eta –%0,7, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 2,4ko gorakada izan du, hau da, 4.659 afiliatu gehiago.

Araubide Orokorra % 2,9 handitu da eta Autonomoena % 0,3. Etxekoa –% 3,4 eta berezietakoak (Nekazaritza eta Itsasoa) –% 1,1.

Sektoreka, Zerbitzuetan 4.213 afiliatu gehiago daude (% 2,4), Industrian 287 gehiago (% 3,2), Eraikuntzan 155 gehiago (% 1,7) eta Lehen sektorean 4 gehiago (% 1,7).

Nabarmentzekoak dira, bereziki, Garraio eta biltegiatzean, Hezkuntzan, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan, Ostalaritzan, Informazio eta komunikazioetan eta Osasunean izandako hazkunde absolutuak (665, 583, 539, 533, 465 eta 425 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,3ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Sevillak izan du igoerarik esanguratsuena (% 0,8).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, –% 0,2 jaitsi da. Gasteizen –% 0,9 egin du behera. Donostian % 0,1 hazi da eta Iruñean % 0,2.

EAEn, oro har, afiliatutako biztanleria bere horretan mantendu da hilabete batetik bestera (% 0,0, zehazki, -35 enplegu). Lurraldeka, Arabak afiliazioa galdu du (–% 0,7) eta Bizkaian eta Gipuzkoan, % 0,1 eta % 0,2 hazi da, hurrenez hurren.

Kontratuak

Apirilean 9.142 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino –% 12,4 eta 1.291 kontratu gutxiago. Urtetik urtera murriztu egin dira gizonei eta emakumeei egindako kontratuak: 411 eta 880 gutxiago, hurrenez hurren.

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Apirila	198.890 pertsona
	% 0,1 ▼
Zerbitzuak	% 0,1 ▼
Eraikuntza	% 0,7 ▼
Industria	% 0,2 ▲
Lehen sektorea	% 14,0 ▲

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,1 ▼
G-5	% 0,3 ▲
G-3	% 0,2 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Gazteenei egindako kontratuak $-\% 18,0$ murriztu dira, hau da, 447 kontratu gutxiago. Bestalde, behera egin dute 25-44 urte arteko taldean $-\% 12,3$ (639 gutxiago) eta 45 urteko eta gehiagoko taldean $-\% 7,4$ (205 gutxiago). Erregistratutako kontratuen $\% 49,9$ dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (4.558 kontratu), $\% 22,3$ berriz, gazteenei (2.035) eta gainerako $\% 27,9$ a, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (2.549).

Zerbitzuetako kontratuak soilik egin dute behera ($-\% 13,4$, hau da, 1.295 gutxiago), Eraikuntzan bere horretan mantendu dira ($\% 0,0$) eta Industrian gora egin dute ($+\% 0,7$ eta 3 gehiago). Igoera absolutu esanguratsuenak Informazioa eta komunikazioetan (279 kontratu gehiago) eta Merkataritzan (108 gehiago) gertatu dira. Ostalaritza, Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak eta Garraioa eta biltegiatzea dira urte arteko galera handienak izan dituzten adarrak (-466 , -385 eta -266 , hurrenez hurren).

Apirileko aldi baterako kontratuak kontratu guztien $\% 75,6$ izan dira. Kontratatuak 7.056 izan dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,30 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza-salmentak

Bizkaiko txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko $\% 2,1$ eko hazkundera izan du salmentetan lehen hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek $\% 2,2$ egin dute gora.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, $-\% 0,1$ jaitsi dira salmentak.

Sektoreen arabera, urtetik urtera behera egin dute automoziorako erregaien salmentak ($-\% 0,4$), eta gora egin dute elikagaien salmentak eta gainerako produktuenak ($\% 3,8$ eta $\% 0,5$, hurrenez hurren).

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak $-\% 0,1$ murriztu dira 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEko salmentek gora egin dute $\% 2,5$. Lurraldeka, Gipuzkoan ($\% 2,7$) egin dute gora, eta Araban ($\% 3,5$).

Erregistratutako kontratuak

Δ Urte artekoa

Apirila	9.142 kontratu
	$\% 12,4$ ▼
Emakumeak	$\% 15,5$ ▼
Gizonak	$\% 8,7$ ▼
Lehen Sektorea	$\% 33,3$ ▲
Industria	$\% 0,7$ ▲
Eraikuntza	$\% 0,0$ =
Zerbitzuak	$\% 13,4$ ▼
Kontratututako pertsonak	7.056 pertsona
	$\% 8,8$ ▼

Txikizkako merkataritza Bizkaia

Δ Urte artekoa

I hiruhilekoa	109,4 adierazle orokorra
	$\% 2,1$ ▲
- Elikadura	$\% 3,8$ ▲
- Gainerako produktuak	$\% 0,5$ ▲
- Ibilgailuetarako erregaia	$\% 0,4$ ▼
Gasolina-zerbitzugunerik gabe	$\% 2,2$ ▲
Landunak	$\% 0,1$ ▼

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek apirilean % 2,4 egin dute behera urte batetik bestera, egutegia-efektua zuzenduta duten datuetan. Aurreko hilabeteari dagokionez, salmentak % 1,0 igo dira.

Elikagaien salmentek % 1,2 egin dute gora 2024ko apirilarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek % 4,5eko gorakada izan dute.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 2,3ko gorakada izan du.

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute soilik Araban (-%1,9). Gipuzkoan % 0,2 egin dute gora eta EAE osoan % 1,1.

Grandes superficies Bizkaia

Δ Urte artekoa

Apirilak	97,7
Salmenta-indizea	% 2,4 ▲
- Elikadura	% 1,2 ▲
- Gainerako produktuak	% 4,5 ▲
Landunak	% 2,3 ▲

EKONOMIA

Merkatuko beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 3,4 igo dira lehenengo hiruhilekoan.

Jarduera-adarren arabera, lehen hiruhilekoan Garraioa eta biltegiratzea % 10,4 hazi da eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak % 4,6. Ostalaritzako (-% 1,8), Informazioa eta komunikazioetako (-% 1,0) eta Administrazio-jardueretako (-% 0,3) adarrek behera egin dute.

Landunak % 0,1 ugaritu dira urtetik urtera.

Arabako beste zerbitzuen salmenten-indizeak % 5,7 egin du gora, Gipuzkoan % 4,3 eta EAE % 4,0.

Merkatuko zerbitzuen salmentak.

Bizkaia

Δ Urte artekoa

I. hiruhilekoa	120,5
Salmenta-indizea	% 3,4 ▲
Landunak	% 0,1 ▲

Etxebizitza

Salerosketa. Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa 4.135,0 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak urteko lehen hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzaren Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino % 10,8 garestiagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan -% 3,8ko beherakada izan du. Erabilitako etxebizitzaren metro koadroko batez besteko prezioak -% 0,2 egin du behera 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, eta 3.136,8 eurokoa da. Urte arteko aldakuntza positiboa da, % 7,7koa.

Bilboko etxebizitza libreen salerosketa-transakzioen batez besteko prezio osoa, urteko lehen hiruhilekoan, 361.944 euro izan da, eta etxebizitza erabiliena, 265.961 euro.

Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m²)

I. hiruhilekoa	4.135,0 €/m²
Δ Hiruhileko artekoa	% 10,8% ▲
Δ Urte artekoa	% 3,8 ▼

Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m²)

I. hiruhilekoa	3.136,8 €/m²
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,2 ▼
Δ Urte artekoa	% 7,7 ▲

TURISMOA

Bilboko hotel establezimenduek 206.189 gaualdi erregistratu dituzte apirilean, hau da, % 15,3ko urte arteko igoera eta 27.408 ostatu-gau gehiago, kontuan hartuta 2025ean Aste Santua apirilean izan dela eta 2024an martxoan izan zela.

Bidaia-erien sarrerak % 13,0 egin du gora, eta are gehiago atzerriko bidaia-erien artean, horiek hirian duten presentzia % 22,0 hobetu baita. Estatuko segmentuak ere gora egin du % 3,0, eta Bilboko hotel-establezimenduetako bidaia-eri-sarreraren % 43 hartzen du (2024ko apirilean iritsitako estatuko bidaia-riak % 52,4 ziren).

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaia-eriei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugari-eri-nak (% 24,8), gero EAEkoak (% 14,2), Kataluniakoak (% 14,1) eta Valentziakoak (% 6,8). Atzerriko bidaia-eriei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugari-eri-nak: Erresuma Batua (% 12,4), Frantzia (% 11,5), Alemania (% 10,6), AEB (% 8,2) eta Italia (% 8,1).

Gora egin du batez besteko egonaldiak eta bidaia-ri bakoitzeko 1,93 ostatu-gau izan dira.

Batez besteko hotel-tarifek gora egin dute (% 1,7) eta gela eskuragarri-ko diru-sarrerak -% 1,6 murriztu dira.

Apartamentu turistiko-eri-n establezimenduek 16.779 sarrera erregistratu dituzte guztira apirilean, hau da, % 81,8 gehiago eta 30.390 gaualdi gehiago, eta 2024ko apirilean baino % 52,8 gehiago.

Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, apirilean 123.522 sarrera eta 236.579 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 19,1 bi kasuetan).

Aste Santua Bilbon (ostegunetik igandera, 4 gau).

Aste Santuan 18.265 sarrera eta 39.548 gaualdi erregistratu dira Bilboko hotel eta apartamentu turistikoetan, 2024ko Aste Santuan baino % 22,2 eta % 18,1 gehiago, hurrenez hurren. Turismoaren % 48 estatukoa da eta batez besteko egonaldia 2,17 ostatu-gau bidaia-ri bakoitzeko; hau da, behera egin du 2024ko Aste Santuarekin alderatuta (2,24).

Benchmarkina. Euskal hiriburu-eri-n multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gau-eri-n bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 6,5 hazi da eta. Gora egin du Iruñean (% 9,8), Gasteizen % 8,0 eta Donostian (% 4,9). Urtetik urtera gora egin du EAEn (% 10) eta hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 5,8, Araban % 8,3 eta gehien Bizkaian % 14,8.

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gau-eri-n % 2,9ko gorakada izan dute. Valentzia eta Sevillan izan ezik (-% 3,2 eta -% 1,7, hurrenez hurren), ostatu-gau-eri-n gora egin dute taldeko hiriburu guztietan.

Ostatu-gauak

Urte artekoa Δ

Apirila	206.189 ostatu-gau
	% 15,3 ▲
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 13,4 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 21,6 ▲

Bidaia-erien sarrera

Urte artekoa Δ

Apirila	106.743 sarrera
	% 13,0 ▲
Nazionalak	% 3,0 ▲
Atzerritarrak	% 22,0 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte artekoa Δ

Apirila	1,93 ostatu-gau/bidaia-ri
	% 2,12 ▲

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 1,7 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 1,6 ▼

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Apirila	
Ostatu-gauak	30.390 ostatu-gau
	% 52,8 ▲
Bidaia-erien sarrerak	16.779 sarrera
	% 81,8 ▲

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesional-eri-n eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistiko-eri-n etxebizitza partikularrak).

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 15,3 ▲
G-5	% 2,9 ▲
G-3	% 6,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko bidaiariak

Bilboko aireportuak 617.667 bidaiari izan ditu apirilean (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 4,3 eta 25.399 bidaiari gehiago.

Hegaldi nazionalak bidaiarien kopuruak behera egin du, izan ere, 4.420 bidaiari gutxiago izan dira (-% 1,3); hala ere, nazioarteko bidaiarien kopuruak gora egin du % 11,9 eta 29.892 bidaiari gehiago izan dira.

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 4.698 izan dira (% 0,4), eta garraiatutako salgaiak igo dira (% 36,3).

Apiriletik urtarilerara 1.928.759 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 2,0 gehiago, hau da, 37.855 bidaiari gehiago.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 5,3ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Zaragozan izan da hazkunderik nabarmenena (% 13,6) eta Sevillan baxuena (% 1,6).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoa begira, % 8,3 handitu da, urtetik urtera. Langabeziak gora egin du Gasteizen (% 37,4) eta Iruñean (% 5,7). Donostian behera egin du (-% 8,5).

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,7 milioi tonako trafikoa izan du apirilean, hau da, -% 11,2 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan apirilean kudeatutako salgaien % 65,1 izan da, eta urte arteko -% 6,3ko jaitsiera izan du. Solteko gaien trafikoa -% 17,9 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrena -% 18,8 jaitsi da.

Apirilean 5 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik apirilera, 10,9 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko aldi berean -% 5,8 gehiago.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Apirila	617.667 bidaiari
	% 4,3 ▲
Nazionalak	% 1,3 ▼
Nazioartekoak	% 11,9 ▲
Salgaiak (kg)	% 36,3 ▲
Hegaldiak	% 0,4 ▲

Benchmarkina

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 4,3 ▲
G-5	% 5,3 ▲
G-3	% 8,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa Apirila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,7 milioi tona
	% 11,2 ▼
Bidaiariak garraiatzea	23.104 bidaiari
	% 25,8 ▼
Itsas bidaiariak (kop.)	9.539 itsas bidaiari

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.942	-1,8*	2025eko apirila
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	198.890	-0,1*	2025eko apirila
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	9.142	-12,4	2025eko apirila
Biztanleria aktiboa (milakotan)	190,3	4,5*	2025eko I. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	168,0	4,4*	2025eko I. HH
Langabeak (milakotan)	22,3	5,2*	2025eko I. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	11,72	0,09 p.p.*	2025eko I. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	118,6	0,6*	2025eko apirila
Afiliatuak**	20.153	-0,1*	2025eko apirila
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	109,4	2,1	2025eko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	97,7	2,4	2025eko apirila
Turismoa			
Bidaarien sarrera	106.743	13,0	2025eko apirila
Ostatu-gauak	206.189	15,3	2025eko apirila
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaia)	1,93	2,12	2025eko apirila
Hoteletako okupazio-maila (%)	64,7	2,4 p.p.	2025eko apirila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	84,1	-1,6	2025eko apirila
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd	105,6	0,7*	2024ko IV. HH
Industria-ekoizpena (indizea)**	107,9	-4,1	2025eko martxoa
Merkataritza-sozietate berriak	260	12,6	2025eko I. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	120,5	3,4	2025eko I. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.135,0	10,8*	2025eko I. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	3.136,8	-0,2*	2025eko I. HH
Garraioa			
Bidaarien aire bidezko garraioa	617.667	4,3	2025eko apirila
Hegaldiak	4.698	0,4	2025eko apirila
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,7	-11,2	2025eko apirila

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENaren, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Afiliatuak




Erregistratutako langabezia




Txikizkako merkataritza-indizea



Beste zerbitzuen indizea



Aireportuko bidaiariak



Hotel-gauak

